

ABIZENAK

ARRUZA (Maruri): Mungialdean sortua eta andik zabaldua da.

"Arru-" mendu artea dalako, eta "-tza" atzizkia ugaritasuna dan ezkeror, izen ori daroan etxea mendi-bitarte asko dagon lekuan legoke.

ASABURU: Gamiz'en dago etxe bat, Arrankudiagan ei dago beste bat.

"Asa-"sasitza da eta "-buru" gaiñea. Etxe ori sasitza baten gañean egin zan.

ASOLO: Mungian daukagu. 1593.

"Asa-" sasia dan eskero, "solo" zer dan be argi dago, sasia daukan soloa dogu. Asola be antzera: Sasitza ugaria.

ASPILLAGA (Azpeitia 1570): "Aspil-" landara bat da, erderaz "boj" deritxona. Abizen onek aspilla dagon lekua esan nai dau.

Elgoibar'en eta Azpeitian ezaguna.

ASTELARRA (Bizkaia): "Astel" kardua ba'da, "astelarra" karduk daukazan larra izango da, barduz beterik dagoan zelaia.

ASTIGARRAGA: Gipuzkoan da agirien (1668). Astigar "tilo" dan ezkeror, abizen au astigarrak dagozen tokia da.

ASTOREKA: Larrabetzun dago auzo bat izen au daroana. (1754).

"Artea"ren ordezt "astea" esaten zan lenago eta ortik etorria dirudi: "-eka" tokia adieratzen dau eta orrelan arteak dagozen tokia litzake.

ASTORKIZA: "Astorki-" landara bat da eta "-tza" k ugaritasuna iragarten dau.

Bizkaian Berangon dago eta Gipuzkoan Oñaten, baiña geiago zabaldu da.

ATELA: "Ate-"tik dator eta "la" k tokia agertzen dau. Atea dagon tokia, baiña mendi-atea, ez etxe-atea.

Bizkaian ainbat dagoz.

ATUTXA: Arratia-aldean ugarien.

"ate-" artea ei da eta "-txa" ugaritasuna, baiña ez dago ain argi.

AURTENETXE: Bizkaian.

"-etxe" argi dago baiña non dago etxe ori? "artean" edo beste etxe batzuren bitartean.

AURRE: Morgan dago eta emendik Zestoara igaroda. (1703).

Aurreko aldea esan nai dau, baiña beste batzuk "urre"tik datorrela diñoe. Urrea edo urretxa.

AURREKOETXEA: Bizkaian (1794) zabal dabil. Gipuzkoan: Zestean.

Aurreko aldean dagoan etxea esan nai dau, argi dagoan lez.

AXPE: Abizen au Zeanuritik urtena da eta Bizkairik geienera zabaldu da. Ez Gipuzkoara, an "Aitzpe" izan bearko leuke. (1497).

Atxaren barrenean edo azpian dagoan etxe baten izena litzake. Ortik gero abizena.

AIERBE: Oscan dago ugari. Erria be bai. Ortik etorri da Nafarroa ta Gipuzkoara. (1130).

Aldapa adierazten dau, eta aldapa au otez beterik legoke eta orren barrenean izen au daroan etxea.

AIO: Bizkaian agertzen da XV gizaldian eta geroago Arabako Aiala'n. (1676).

"Aia-" otea dauan aldapa izanik, azkenengo "-o" tokia adierazteko izan leiteke.

AZAROLA: Gipuzkoan dago geien (1648).

Geienen ustezt "azar-" sasia da eta ola onek azkenean ugaritasuna adierazten dau: Sasia ugari dagon lekua. Baten batek "azari" lukia esan nai dauan itzatik ateraten dau, baiña ez dauko antzik.

AZKARATE: Benabarratik Leizara sartu da, gero Elgoibar-aldera (1649).

Era askotan ulertu leike: "Aitz-Garai-Ate": Aitzaren gaiñean dagon mendi-atea da geien esaten dauskuna.

AZKOAGA: Aramaiona'tik urtena da eta ortik Goi-Deba aldera (1530).

"Azki" grama deritxon landara bat da eta "aga" k tokia adierazten dau eta mugatzaillea sendotu.

AZKUE: Bidasoa inguruan sortua da eta Gipuzkoa osoan zabaldu da. Gaur Bizkaian be bai (1650).

Lenago "Azkune" izango zan eta orrelan aitzadagon unea esan nai dau. Edozelan be "atxekoa".

AZNAR: Aragoi-aldean sortua da eta emendik sartu da Nafarroara eta Euskalerrri osoa (824). Azagari Lukia.

OLAZAR'tar Martin'ek